




2. Eranskina

EUSKADI ETA AEBen ARTEKO MERKATARITZA HARREMANAK

- Euskadi hirugarren postuan dago AEBetara esportatzen duten autonomia erkidegoen artean.
- Azken 4 urteotan AEBak izan dira euskal esportazioen hirugarren jomuga (Frantzia eta Alemaniaren atzetik) eta inportazioen zortzigarren jatorria.
- Euskadi da AEBetan gehien inbertitzen duen autonomia erkidegoa (2000-15 urtealdiko guztizkoaren arabera).
- AEBak dira atzerriko euskal inbertsioen lehen jomuga (2000-2015).
- Estatu Batuetan eginiko euskal inbertsioei dagokienez, aipatzekoa da BBVA eta Iberdrola enpresei dagozkiela Ekonomia Ministerioak kontabilizatuta dauzkan inbertsio-bolumen handienak.

Grafiko honetan ikus daiteke nolakoa izan den Euskadik AEBekin izandako merkataritza-harremana denboran zehar.




Estatu Batuekiko merkataritza-balantzak superabit argia erakusten du Euskadiren alde. Estaldura-tasa hazi egin da denborarekin eta %441ean kokatu da.



Euskadi eta Estatu Batuen arteko merkataritza-balantza

	(mila euro)			
	2012	2013	2014	2015
Esportazioak	1.320.491	1.484.654	1.705.707	1.717.564
Inportazioak	565.943	796.732	378.649	389.477
Merkataritza saldoa	754.548	687.922	1.327.058	1.328.087
Estaldura-tasa %	233	186	450	441

Hona hemen, produktu ez-energetikoen bilakaera.



Euskadiren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-balantza - Produktu ez energetikoak

	(mila euro)			
	2012	2013	2014	2015
Esportazioak	774.929	757.202	893.796	941.353
Inportazioak	289.171	288.429	281.290	326.113
Merkataritza saldoa	485.758	468.773	612.506	615.240
Estaldura-tasa %	268	263	318	289



AEBetara egiten diren esportazioen ia erdia (%45) erregai mineralak dira, zehazki, petrolio birfindua. Horrez gain, aipagarriak dira baita ere galdaketako produktuak, ekipo ondasunak, aeronautikako osagaiak, automozioiko osagaiak, makineria elektrikoa, burdinbideetako materiala eta edariak.

Euskaditik Estatu Batuetara gehien esportatutako produktuen kapituluak.

	(milaeuro)
Guztira	1.717.564
27 Erregai mineralak	776.211
84 Bestelako ekipo ondasunak	268.252
73 Galdaketako manufakturak	172.274
87 Autoak	112.395
72 Burdin eta altzairu galdaketa	59.986
85 Makina eta aparatu elektrikoak	46.864
83 Manufaktura metalikoak	45.245
93 Armak eta munizioak	34.741
22 Edariak	28.376
88 Aireko edo espazioko nabigazioa	25.388
86 Burdinbideetarako ibilgailuak	21.838
48 Papera eta kartoia	14.611
40 Kautxua eta kautxuaren manufakturak	14.358
94 Altzariak	10.858
82 Tresnak	9.104
04 Esnekiak eta arrautzak	8.222
68 Harrizko manufakturak	8.098
29 Produktu kimiko organikoak	6.497
90 Optikako tresnak	5.598
76 Aluminioa eta aluminioaren manufakturak	5.279

Estatu Batuetatik gehien inportatutako produktua erregai mineralak dira, %16 zehazki. Horrez gain, aipatzekoak dira baita ere produktu farmazeutikoak, ekipo ondasunak, makina elektrikoak, galdaketako manufakturak eta mineralak, besteak beste.

Estatu Batuetatik Euskadira gehien inportatutako produktuen kapituluak

	(milaeuro)
Guztira	389.477
27 Erregai mineralak	63.364
30 Produktu farmazeutikoak	44.664
84 Erreaktore nuklearrak	41.453
85 Makina eta aparatu elektrikoak	33.520
03 Arraina	24.961
26 Mineralak, zepak eta errautsak	21.030
75 Nikela eta nikelaren manufakturak	18.816
76 Aluminioa eta aluminioaren manufakturak	17.333
90 Optikako tresnak	16.080
48 Papera eta kartoia	15.825
73 Galdaketako manufakturak	12.164
87 Autoak	11.476
81 Gainerako metal arruntak	7.380
44 Zura eta zuraren manufakturak	7.175
39 Materia plastikoak	6.807
88 Aireko edo espazioko nabigazioa	4.579
82 Tresnak	3.830
93 Armak eta munizioak	3.737
40 Kautxua eta kautxuaren manufakturak	3.271
29 Produktu kimiko organikoak	2.458

Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoaren arabera, 427 enpresak eskuarki esportatzen dute Estatu Batuetara.

EUSKAL INBERTSIOA ESTATU BATUETAN

SPRIk emandako datuen arabera, 75 euskal enpresa daude Estatu Batuetan eta guztira 93 ezarpen dituzte (filialak edo ordezkariak). Ezarpen horietatik 35 produkziozkoak dira, 49 komertzialak eta 9 zerbitzuetakoak.

MOTA	EZARPEN KOPURUA
KOMERTZIALAK	49
PRODUKZIOZKOAK	35
ZERBITZUETAKOAK	9
GUZTIRA	93

Hauek dira sektore garrantzitsuenak: energia, automozioa, burdinbideko ekipamenduak, bioteknologia, telekomunikzioak eta informatika, ingeniariaritzak eta hodiak.

Hona hemen Estatu Batuetan eginiko inbertsioa, alegia Ekonomia Ministerioaren Merkataritzako Estatu Idazkaritzak erregistratuta daukana.

- Euskadi da AEBetan gehien inbertitzen duen autonomia erkidegoa, 18.800 milioi euro zehazki (2000-15 urtealdiko guztizkoaren arabera).
- AEBak dira atzerriko euskal inbertsioen lehen jomuga.
- Bi kasuetan aipatzekoa da inbertsioaren zati handi bat BBVARI eta Iberdrolari dagokiela eta euskal inbertsio gisa kontabilizatu direla.

Bestalde, Estatu Batuetako enpresen 80 filial inguru daude Euskadin kokatuta.

NEGOZIO AUKERA HANDIENAK

AEBak munduko lehen ekonomia dira, eta, NAFTA eremuko gainerako herrialdeekin batera, 467 milioi laguneko merkatua osatzen dute, zeintzuek mota guztietako ondasun eta zerbitzuak eskatzen baitituzte.

Era berean, Amerikako Estatu Batuek industria sektore indartsua dute, era guztietako ekipo ondasunak eta osagaiak behar dituenak.

Sektore bereziki interesgarriak dira energiarena, burdinbide azpiegitura eta ekipoena, aireportuena, biozientzia, automozioarena eta besteak beste, aeronautikarena.

Ekainak, 2016.